

# Arazo Linguistikoa (?) Laudion XVIII.mendearen bukaeran

JON IÑAKI URKIJO\*

**1** 760.urtean Laudiora Bereter Benefiziatu bidali zuten On Leonardo Uria Orueta Lizentziatua. Garai hartan Laudioko Eliz-batzarra bost partaidek osatzen zuen. Beronen etorreran On Manuel Fernando Orue, On Joaquin Solaun, On Francisco Rotaetxe, On Nicolas Murga eta On Leonardo Uriak berak osotzen zuten Eliz-batzarra.

Hona heldu eta hamar urteren buruan On Leonardo Uria Oruetak hiru epaiketatan sartu zuen bertako Eliz-batzarraren burua zen On Manuel Fernando Orue Jauna.

Istilu hauen muinean Bereter Benefiziaturek bete behar zitzutzen lanetan datza. On Manuel Fernando Oruek herriaren deskribapena egin zuen Gasteizko Apezpikuari sortu zen egoera salatzeko idatzi zion gutun batetan (1875.urtean). Laudio lau auzotegik osatzen zuen. Auzotegi hauek oso sakabanaturik zeuden. Orotara 1800 biztanle zegoen herrian, auzotegietan eta inguruko mendietako baserrietan zehar barreiatutik. Biztanle guzti hauen behar izpiritualak betetzeko lan eskerga egin behar zuten eliz-gizonek. Herriaren egitura honek lanaren zaitasuna areagotu baino ez zuen egiten.

Arazoa sortu zen, beraz, Leonardo Uria jaunak uko egin zionean zenbait lan egiteari. Bere ustez, aitortzea, gaixoei kontsolamendu izpirituala ematea, e.a. ez ziren Benefiziaturei zegozkien lanak. Honela herri osoari zerbitzatzeko lana On Manuel Fernando Orueren eskuetan geratuko zen, beste guztiak Bereter Benefiziatuak bait ziren, eta beronek zioenez ezinezkoa zen lan oso hori ganoraz betetzea pertsona bakar batek.

Honako pribilegio horiek lortzeko Leonardo Uria jaunak epaitegietara jo zuen. Epaia bere esanen kontra agertu zen lan hauek egitera behartuz, baina ez zuen etsi eta azkenean 1772.urtearen inguruan Eliz eta Udal-batzarreak elkarren kontra jarri zituen aipatutakoa eta beste zenbait gai direla medio.

\* Licenciado en Filología Vasca en la Universidad de Deusto.

Leonardo Uriak Konkordia edo Itun bat egin nahi izan zuen, bertan berak aldarrikatzen zituen Benefiziatuentzako eskubideak isladatzeko. Bertoko Eliz-barrutiari, 1773ko uztailaren 5ean herriarekiko Konkordia egin dezan agindu zioten. Konkordia hau 1778.an osotu zuten batzar biek eta ondoren Eliz Tribunalari igorri zioten adostasuna eman dezan eta 1780.an onarprena jaso zuen Konkordiak.

Baina Batzarre bien arteko Konkordia egitera Leonardo Uria jaunak berak bultzatu bazituen ere, azkenean ez zuen lortu berak nahi zuena. Batzarre biek egindako eta gero Eliz Tribunalak onartutako Konkordian, ez zitzuten ezarri Leonardo Uria jaunak proposaturiko kapituluak. Ondorioz Leonardo Uriak, Nicolas Murgarekin batera, Konkordia honen kontra jo zuen epaitegian.

“...ultiman.” ha enzarzado a las dos comunidades eclesiastica y secular en uno con pretexto de que se forme Concordia haviendo vivido antes en la mayor union y armonia, que se ha fomentado la mayor discordia entre ellas; haviendo salido ultimam.” por si solo contra su Propio Cavildo con poder especial, pidiendo se le comuniquen los autos, y se forme la Concordia arreglada a unos Capitulos, que separado de su Cavildo dispuso, y presento al Valle, entre los cuales los *prales* son, que los Beneficiados de esta Yglesia no tienen oblig.<sup>an</sup> de asistir al Confesionario...

...otro es, q.<sup>c</sup> este le de voz y voto para pleitar contra el Cura sobre los emolumentos destinados a su oficio...”<sup>1</sup>

Lehenengo epaia 1781ko otsailaren 17an egin zen. Epaia konkordiaren alde eta aipatutako Bereter Benefiziatu hauen interesen aurkakoa izan zen, birritan errekurritu zuten eta bietan lehenengo epaian erabakitakoari eutsi zioten (bigarren epaia 1782ko abuztuaren 21ean agertu zen eta hirugarrena 1784ko urriaren 13ean).

On Leonardo Uriak Laudion eman zituen urteetan bertoko herritarren- gan eragina izan zuen eta berak aldarrikatzen zituen eskubide edo pribilegioen aldeko nolabaiteko laguntza lortu zuen. Bainaz ez zuen eragina izan herritar sekularrengan bakarrik. Oso eragin handia izan zuen ere, bera bezala bertoko Bereter Benefiziatura zen Nicolas Murga jaunarengan (lehentxoago aipatua). Bereter honek, laguntza eman zion Leonardo Uriari eta berea egin zuen ere haren nahia. Leonardo Uriari epaiketetan laguntzeaz gain, bestelako ekintzak egin zituen ere, beraien ustezko eskubideen alde. Nicolas Murgak hizkuntza, espainiera hain zuzen, arma politiko bihurtu zuen. Garai hartan Laudioko biztanle guztiak euskaldunak ziren. Hau da, euskera zekiten. Oso gutxi ziren euskeraz gain espainiera zekitenak, eta pertsona elebidunak baziren ere nahiago zuten euskeraz aritza espainieraz baino. Elizako gaietan ere, aitormen eta abarretan, lasaiago aritzen ziren euskeraz, eta honela egitea nahiago zuten:

“...Ha llegado esto a tanto q.<sup>c</sup> ha cundido su influjo en D. Nicolas de Murga combeneficiado, q.<sup>r</sup> ha intentado, y aun solicita poner en esta Ygl.<sup>r</sup> un Capellan servidor ignorante totalm.<sup>r</sup> de el Ydioma bascongado inutil p.<sup>r</sup> el Confesionario de

1. “Laudion, Batzarre sekularra eta elizakoaren artean egindako ituna dela eta, sortu zen auziari buruz, On Francisco Xavier Irabik, berari egindako galdera batzuei erantzuteko osoturiko txostena”, 1774.

Gasteizko Apezpikutegiaren Artxibategi Historikoan datzan eskuskribua.

esta Ygl.<sup>o</sup> y p.<sup>o</sup> la asist.<sup>o</sup> de enfermos y moribundos, expresando publicam.<sup>o</sup> y tirando a persuadir a los feligreses, q.<sup>c</sup> ni los Beneficiados, ni sus servidores tienen oblig.<sup>o</sup> de Confesar...”<sup>2</sup>.

“Lo 5.<sup>o</sup> se advierte q.<sup>c</sup> el Valle de *Llodio* es compuesto de quatro quadrillas de mucho gentio, y en caserias mui distantes, y todos Bascongados cerrados, pues aunq.<sup>c</sup> muchas Personas, q.<sup>c</sup> viven en la rivera, ó cerca de el camino Real entienden algo de el Castellano, pero su comun lenguage y explicaz.<sup>c</sup> assí en las combersaciones, como en la Doctrina Xptiana y confessiones, aun estos mismos q.<sup>c</sup> entienden algo de el Castellano, es spre, y por lo comun en la lengua nativa Bascongada; exceptuanse algunas Personas Particulares de Caballeros & q.<sup>c</sup> aunque Bascongadas suelen hablar en Castellano”<sup>2</sup>.

“Lo 6.<sup>o</sup> se advierte, q.<sup>c</sup> en este Valle todos los sermones, y Doctrinas q.<sup>c</sup> se explican entre año son en lenguage Bascongado, sin q.<sup>c</sup> se permita, y seg.<sup>c</sup> y conforme previene, y manda la sinodal Constituz.<sup>c</sup> 12. de el libro 1. titulo 1. *predicar en Castellano sermon, ni Doctrina alg.<sup>c</sup>*”<sup>1</sup>.

“Lo 3.<sup>o</sup> si el Pueblo, ó su sindico *Pror gral* estará obligado en concienzia a resistir la entrada de semejante servidor ygnorante de el Ydioma Bascongado essencialm.<sup>c</sup> neces.<sup>c</sup> en este dilatado Pueblo; por q.<sup>c</sup> aunq.<sup>c</sup> baia muchos q.<sup>c</sup> entienden el castellano ay muchisimos mas sin comparaz.<sup>c</sup> q.<sup>c</sup> no le saben ni entienden; y a todos estos se les pribava de la libertt.<sup>c</sup> y del consuelo espirit.<sup>c</sup> de poderse confesar, y desahogarse q.<sup>c</sup> quisiesen en sana salud, y hallandose enfermos con el servidor de el tal Benef.<sup>c</sup> pues puede suceder, y es accesible a cada paso, q.<sup>c</sup> muchas Personas Bascongadas de el todo, no quieran confesarse, ni manifestarse al cura y then.<sup>c</sup> yá sea q.<sup>c</sup> enferm.<sup>c</sup> ya sea en qualq.<sup>c</sup> otro tpo de el año; y ygnorando el serv.<sup>c</sup> el Bascuence quedaban estas Personas imposibilitadas de lograr su consuelo espirit.<sup>c</sup> de el q.<sup>c</sup> podria pender acaso su salvaz.<sup>c</sup> eterna”<sup>1</sup>.

Nicolas Murgak berari zegokion benefizioa betetzeko, zerbitzari erdelduna izendatu zuen: On Juan Luis Portura. Honela, zerbitzari honek ezin zituen bete lehian zeuden eginbehar horiek. Zerbitzari hau ezgauza zen aitortegian aritzeko eta gaixo eta hilzorian zeudenei laguntza izpirituala emateko. Era horretan definitu zuen hainbestetean Manuel Fernando Oruek:

“...Servidor Ynutil...”

“...serv.<sup>c</sup> q.<sup>c</sup> es inutil para esta feligresia...”

“...ignorante totalm.<sup>c</sup> de el Ydioma bascongado inutil p.<sup>c</sup> el Confesionario de esta Ygl.<sup>c</sup> y p.<sup>c</sup> la asist.<sup>c</sup> de enfermos y moribundos...”<sup>2</sup>

Dena den ezin esan dezakegu Laudion XVIII.mendearen bukaeran izan zen arazo hau inongo hizkuntz-borrokak eragin zuenik. Hizkuntza beste zenbait interes bultzatzeko erabili zen eta ondorioz bigarren planu batean geratu zen. Alde batetik On Leonardo Uria eta Nicolas Murgak haien betebeharren artean ez zituzten onartu nahi lehen aipatutakoa. Honetarako izendatu zuen Nicolas Murgak zerbitzari erdalduna. Hau da, praxian ezinezkoa bait zuen pertsona honek eginbehar horiek betetzea. Eta haien aburuz ez zituzten bete behar:

“...nos vemos amenazados por D. *Nicolas de Murga* con el Capellan servidor ignorante de el Ydioma bascongado, que con el mayor esfuerzo intenta introducir en esta Yglesia, pues con este defecto tan sustancial es Ymposible ejercer el empleo de Cura en este Valle...”<sup>2</sup>.

2. “Manuel Fernando Oruek, Leonardo Uria Oruetarekin izandako istiluen ondorioz, Apezpikuari bidalitako gutun-txostena”, 1775.

Gasteizko Apezpikutegiaren Artxibategi Historikoan datzan eskuskribua.

Bestalde, Udal-batzarrea eta Eliz-batzarrearen gainontzeko partaideak, bertoko Apaiz Bereter Benefiziatu eta zerbitzari guztiak euskaldunak izatearen alde agertu ziren. Hauen asmoa ez zen euskera bera defendatzea gaztelearen nolabaiteko eraso baten aurrean. Pertsona guzti hauen xedea, kristau guzti guztien ongi izate izpirituala bermatzea zen. Zerbitzari euskaldunak ezin zuen arimen salbazioa bermatu eta hainbeste eliztarren arima arrisku bizian suertatzen zen.

Hala ere, izandako istilu hauek isladapen praktikoa izan zuten. Zerbitzari erdaldunei nolabait sarrera itxi zieten herrian. Lehenago aipatu dudan konkordian, kapitulu bat eskaini zioten honi:

“6.º Ytt. Que ttodos los individuos de el Cavildo coadyuben a el Pasto Espiritual de este Pueblo conforme corresponde à sus Beneficios y estta mandado en auttos de Visitta, ya sea por sus personas quando residan en este Pueblo, ya sea quando no residan por medio de sus Capellanes servidores, deviendo ser esttos confesores ábiles y suficientes y que sepan bien el idioma bascogado que es el que generalmente se abla en este Pueblo, para que las Almas de él ttengan la libertad y consuelo espiritual de manifesttar sus conciencias con qualquiera indiviudo de el Cavildo sea entre ao ya sea enfermedades corporales conforme lo ttiene pedido el Valle en los capitulos nuebe y diez reservandose para los que ttengan Tittulos de Curas de su Ylt.ª aquellas funciones y administracion de Sacramentos privattibas a su oficio y empleo”<sup>3</sup>.

Eskutan erabili ditudan datuen arabera, konkordia hau, eta zehatzago esanda seigarren kapitulu hau ez zen izan ahuntzaren gauerdiko estula. Dirudienez berrogeita hamar urte inguru beranduago, berriz azaldu zen Laudion apezpikutegiak edo, bidalitako zerbitzari erdeldun bat. Bigarren kasu honetan Udal-batzarrak parte zuzena hartu zuen eta 1827ko abuztuan 12ko udalbatzan honi buruzko erabaki bat hartu zuen. Baino honakoa beste beste kasu desberdin bat da eta hurrengo artikulu batean arituko naiz honetaz.

## LABURPENA

Gaur egun Laudion zein egoeratan dagoen euskera gauza jakina da. Azken datuen arabera (1986.ko zentsua) XVIII.mendearen baino euskaldun gehiago badago ere, biztanlegoaren erdiak baino gehiagok ez du euskeraren inongo ezaguerarik.

Hemen plazaratu dudan lantxo hau, egungoaren kontrako egoeran kokatua dago. XVIII.mendearen azken laurdenean Laudion ez zegoen euskeraz egiten ez zekien biztanlerik (garai hartan 1.800 biztanle zegoen). Erabili izan ditudan agirien arabera, zeuden elebidun bakarrek ere nahiago zuten euskaraz aritzea gazteleraz baino, hobeto azaltzen bait zitzunden honela barne sentimenduak, kezkak, eta abar.

3. “Despacho dela executoria del Pleyto que los dos Cavildos Ecc.co. y Secular de este Valle de Llodio an seguido con el Lizdo. Dn. Leonardo de Uria y Orueta y Dn. Nicolas de Murga individuos Beneficiados de dho Cav.do. ecc.co. Sobre aprovaz.on. de Capitulos establecidos por Concordia por ambas Comunidades &.=”, 1784.

Laudioko Artxibategi historikoan datzan eskuskribua. (Agiri honetan, konkordiaren kopia bat dago. Konkordia bera, Gasteizko Apezpikutegiaren Artxibategi Historikoan datza).

Konkordia honetan aipagarria da 6.artikulua, zeinetan zehazten bait da Laudiora ezin zela etorri euskera ez zekien elizgizonik.

## RESUMEN

Es cosa sabida en qué situación está el euskera hoy en día en Llodio. Según los últimos datos (censo de 1986) aunque hay más vasco-parlantes que en el siglo XVIII, más de la mitad de la población no tiene ningún conocimiento del euskera.

Este pequeño trabajo se sitúa en una situación totalmente contraria a la actual. En la última cuarta parte del siglo XVIII, en Llodio no había ningún habitante que no supiera hablar en euskera (en aquella época había 1.800 habitantes). Según los documentos que he utilizado, las pocas personas bilíngües que había preferían también comunicarse en euskera antes que en castellano, puesto que expresaban mejor así sus sentimientos, preocupaciones, etc.

Es digno de mención el artículo 6.<sup>º</sup> de esta Concordia, donde se especifica que no puede venir a Llodio ningún religioso que ignore el euskera.

## RESUME

La situation que traverse aujourd’hui le basque de Llodio, est un fait bien connu. Selon les dernières données (Recensement de 1986) quoiqu’il y a plus de personnes qui parlent le basque qu’au XVII<sup>e</sup> siècle, plus de la moitié de la population n’a aucune connaissance du basque.

Ce travail se situe dans une situation tout à fait contraire à l’actuelle. Dans la dernière quatrième partie du XVII<sup>e</sup> siècle, à Llodio il n’y avait aucun habitant parlant le basque (à l’époque il y avait 180 habitants). Selon les documents que j’ai utilisé, les rares personnes bilingues qu’il y avait, préféraient parler en basque plutôt qu’en castillan pour pouvoir exprimer mieux leurs sentiments, préoccupations, etc. L’article 6<sup>ème</sup> du Concordia est digne d’être mentionné car il spécifie qu’aucun prêtre ne sachant pas le basque est autorisé à venir à Llodio.

## SUMMARY

Everybody knows the situation of the basque language (euskeru) nowadays in Llodio. According to the last data (1986 census) although there are more euskeru-speaking people than in the 18th century, more than fifty per cent of the population have no knowledge of the basque language.

This brief essay is situated in a moment totally oposed to the present one. During the last fourth part of the 18th century in Llodio absolutely everybody was able to speak euskeru (at that time there were 1.800 inhabitants in the Village). According to the documents I have used the few bilingual persons who existed would rather communicate in euskeru than in spanish as they felt that was the best way to express their feelings and worries.

It is noteworthy the article n.<sup>º</sup> 6 of the treaty where it is said that any clergyman who is not able to speak euskeru will not be admitted in Llodio.

